

# IZURRIAK KONTROLATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

## ► Zer dira hiri-izurriak?

Intsektuek, karraskariek, onddoek eta bakterioek sor ditzakete hiri-izurriak, eta biztanleen osasunari eragin diezaizkete. Gaixotasunak transmititzeko bektore, zoonosi-gordailu, giza parasito izan daitezke, eta alergiak, ziztadak eta abar eragin, bai eta kalteak sortu ere, etxebizitza eta instalazioetako egituretan.

## ► Zer faktorek laguntzen dute hiri-izurriak ugaltzen?

Jatekoa eta babesa aurki dezaketen lekuek, eta izurrietarako ingurugiro-baldintza egokiek lagun dezakete izurriak hedatzen. Kontrolatu gabeko hondakindegia, zabor-pilaketak, egoera txarrean dauden estolda-sareak, hezeguneak, egoera kaskarrean dauden sotoak eta abar gune aproposak dira izurri horiek sortu eta hedatzeko.

## ► Zer neurri aplika daitezke izurriak kontrolatzeko?

- **Prebentzio-neurriak:** garbitasuna, higiena eta saneamendua. Lehenengo neurria eta eraginkorrena da izurriak sortzeko gune izan daitezkeen lekuak desagerraraztea eta sor ez daitezen ahalegintzea.
- **Metodo pasiboak:** hesi fisikoak jartzea, eremu eta instalazioetara izurriak irits ez daitezen, eta ahalik eta gehien zaildu dezaten izurrien babes eta manten leku bihurtzea (pitzadurak eta zuloak tapatzea, leihoetan eltxo-sareak jartzea eta abar).
- **Metodo aktiboak:**
  - > Metodo fisikoak eta mekanikoak: izurria desegiteko aplikatzen diren neurriak dira (tenperatura altua, argi ultramorea, soinua eta abar).
  - > Metodo kimikoak: biozida gisa ezagutzen diren substantzia kimikoak erabiltzea da, izurriak kontrolatzeko.
  - > Metodo biologikoak edo ekologikoak: izurriaren etsai naturalak erabiltzea (parasitoak, harrapariak edo gaixotasunak sortzen dituzten organismoak)

Arau orokor gisa, izurri bat kontrolatu nahi bada, metodo fisikoak, mekanikoak, biologikoak edo ekologikoak erabiliko dira lehendabizi, eta **ezinbestekoa denean, soilik, biozidak.**

## ► Nork eduki behar du izurria kontrolatzeko programa bat?

Indarrean dagoen legeriak **EZ** du ezartzen desinfektatzeko, intsektuak eta arratoiak garbitzeko **tratamendurik egin behar denik** lokal publikoetan, **modu sistematikoan eta ohikoan**, baina **BAI, instalazioak garbi eta izurririk gabe eduki behar direla**. Bereziki, elikaduraren eremuko enpresek eraman behar dute muturreraino garbitasuna eta izurri-kontrola, eta behar duten guztietan egin, nahitaezko tratamenduak.

## ► Zer dira biozidak?

**Substantzia aktiboak eta** substantzia aktibo bat edo gehiago duten **prestakinak** dira; erabiltzaileari ematen zaizkion eran azaltzen dira, eta bitarteko kimiko edo biologikoen bidez edozer organismo kaltegarri deuseztatzeko, indargabetzeko, neutralizatzeke, haien eragina galarazteko edo beste era bateko kontrola gauzatzeko erabiltzen dira.

Gaur egungo arautegiaren arabera, 23 produktu-mota daude, tartean: ohiko bizimoduan eta osasun publikoan erabiltzen diren **desinfektatzaileak, intsektizidak, akarizidak, errodentio-kontrakoak, uxagarriak, kontserbagarriak** eta abar.

## ► Zer biozida erabil daitezke?

**Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren Bioziden Erregistro Ofizialean** inskribaturik egon behar dute biozida-produktuek.

<http://www.mspsi.gob.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/prodQuimicos/sustPreparatorias/biocidas/home.htm>

Erregistroan sartzeko bi sarrera ezberdin daude, 3349/83 EDaren arabera inskribatutako produktuak eta 1054/2002 EDaren arabera sarrera berriak

- Lehenengo sarreraren honelakoa da bioziden erregistro-zenbakia: **XX-YY-ZZZZZ** edo **XX-YY-ZZZZZ-HA**.
  - > **XX:** biozida inskribatu den urteko azkeneko bi zifrak dira.
  - > **YY:** pestizida zertarako den adierazten du:
    - 00: IAT (osagai aktibo teknikoa)
    - 10: arratoi-pozioia
    - 20: bakterizida
    - 30: intsektizida
    - 40: fungizida
    - 50: beste zenbait (uxagarriak, erakartzaileak...)
    - 80: zur-babesleak
    - 90: birizidak
    - 100: legionella pneumophilaren kontrako tratamendurako desinfektatzailea.
  - > **ZZZZZ:** erregistroan inskribatutako hurrenkera-zenbakia.
  - > **HA:** sigla honek adierazten du produktua erabil daitekeela elikagai-industrian, baldin eta bakar-bakarrik langile profesional espezializatuek erabiltzen badute, elikagairik ez dagoenean, eta inskripzio-ebazpenean ezarritako segurtasun-epaia errespetatzen bada.
- Bigarren sarreraren bioziden erregistro zenbaki berria honelakoa da: **ES/RM-AAAA-TT-ZZZZZ**.
  - > **ES:** Estatu Espainolean erabiltzeko baimena duela adierazten du.
  - > **RM:** beste estatu batean baimendutako produktu baten kasuan elkar-ezagutzaren prozedura jarraitu dela adierazten du.
  - > **AAAAA:** Inskripzio sarrera.
  - > **TT:** produktu mota.
  - > **ZZZZZ:** erregistroan inskribatutako hurrenkera-zenbakia.



## ► Nork egin ditzake biozida-tratamenduak?

**Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (EZBEO)** inskribatuta dauden enpresek egin behar dizkiete hirugarrenei biozida-tratamenduak. Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratuta dauden enpresak zein diren jakiteko, jo Osasun Publikoko zuzendariordetzetara, edo egin kontsulta helbide honen bidez:

[http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-cksalu10/es/contenidos/informacion/sanidad\\_ambiental/es\\_1249/biocid\\_empresas\\_c.html](http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-cksalu10/es/contenidos/informacion/sanidad_ambiental/es_1249/biocid_empresas_c.html)

Beste autonomia erkidego batzuetan erregistratuta dauden enpresak zein diren jakiteko, jo Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren web-orrira:

<http://www.mspsi.gob.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/prodQuimicos/sustPreparatorias/biocidas/ROESB.htm>

Zeregin horietan jarduten duten langileek prestakuntza jakin bat eduki behar dute, ez berdina, ordea, tratamenduen arduradun teknikoek edo tratamendu aplikatzaileek.

## ► Zer alderdi hartu behar ditugu kontuan biozida-tratamendu bat egiteko zerbitzua kontratatzen dugunean?

- Izurria kontrolatzeko enpresa edo zerbitzua, dagokion tratamendua egiteko, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen egiaztatu behar dugu.
- Izurriak kontrolatzeko programa bat aurkeztu dezan eskatu behar diogu.

## ► Zer da izurriak kontrolatzeko programa?

- Osasun- eta ingurumen-baldintza egokiak lortzeko beharrezko prebentzio- edo kontrol-prozesuak dituen sistema bat da; xedea da, organismo kaltegarriak ez ugaltzea, eta osasunerako eta ingurumenerako arriskuak minimizatzea.
- Izurriak kontrolatzeko programa egiteko UNE 171210:2008 arauan ezarritako irizpideak bete behar dira. Etapak:
  - > Egoera-diagnosia.
  - > Jarduera-programa.
  - > Ebaluazioa.
- Egoera-diagnosia:
  - > Aurretiko informazioa jasotzea, ikuskapena egitea, egoera aztertzea. Establezimenduaren eta inguruaren ezaugarriak, organismo kaltegarrien aurrekariak eta haiek izatea eta ugaltzea laguntzen duten faktoreak, organismo kaltegarria identifikatzea, zenbateko kontaminazioa/infestazioa dagoen kalkulatzeko eta abar.
- Jarduera-programa: espezie kaltegarrien populazioa tolerantzia-atariaren azpitik edukitzeko jarduera-neurriak eta -estrategiak hartzea da, denboran zehar nola burutu ordenaturik:
  - > Egitura- eta eraikuntza-elementuen gaineko neurriak.
  - > Baldintza higieniko-sanitarioen eta ingurumeneko gaineko neurriak.

- > Portaera eta ohitura osasungarriak garatzeko neurriak.
- > Espezie kaltegarriaren gaineko zuzeneko kontrol-neurriak:
  - Metodo fisikoak.
  - Metodo fisiko-kimikoak.
  - Metodo biologikoak.
  - Metodo kimikoak.

## ► Tratatu beharreko lokalaren arduraduna izanik, zer neurri hartu behar ditugu?

- Eskura eduki behar dugu egin behar den izurri-kontrolaren programa-agiria.
- Dokumentuan jasota datozen arreta-neurriak hartu behar ditugu. Adibidez:
  - > Tratamendua zein egunetan egingo den adierazi.
  - > Tratamendua emango den eremuan pertsonarik, animaliarik edo elikagairik egon ez dadin ahalegindu.
  - > Ezarritako **segurtasun-epea** errespetatu (trataturako eremuetan produktu biozida aplikatzen denetik jendea, animaliak edo elikagaiak sartu bitartean pasatu beharreko denbora).
  - > Beharrezkoa bada, zigilatu trataturako eremuak, eta jarri zenbat denboran ezingo den inor sartu adierazten duten kartelak.

## ► Zer da tratamendua egiaztatzeke dokumentua eta zer jaso behar du?

Tratamendua egingo duen enpresak tratamendua egiaztatzen duen agiria entregatu behar du. Agirian azaldu behar da:

- Kontratatzailearen datuak.
- Biozida zerbitzuak ematen dituen enpresaren datuak.
- Zerbitzua burutzeko egunak.
- Emandako zerbitzu-mota: zaintza-monitorizazioa / tratamendua.
- Zer espezie trataturako den. Tratamendu-lekua.
- Hartutako neurriak.
- Erabilitako produktuak.
- Tratamendua hasitako eta amaitutako orduak.
- Segurtasun-epea.
- Teknikarien sinadura: arduradunarena eta aplikatzaileena.



## ► Aplikatzekoa den oinarrizko arautegia

### Estatukoa:

- 3349/1983 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, plagizidak fabrikatu, merkaturatu eta erabiltzeko araudi tekniko-sanitarioa ezartzen duena (BOE, 1984ko urtarrilaren 24koa) eta dekretuaren geroko aldaketak.
- 1993ko otsailaren 24ko Agindua, Pestizida Arriskutsuen Mugimendurako Liburu Ofizialaren araudia ezartzen duena (BOE, 1993ko martxoaren 4koa).
- 1054/2002 Errege Dekretua, urriaren 11koa, biozidak erregistratzeko, baimentzeko eta merkaturatzeko ebaluazio-prozesua arautzen duena. (BOE, 247. zk.a, 2002ko urriaren 15ekoa).
- SCO/3269/2006 Agindua, urriaren 13koa, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialaren funtzionamendu- eta inskripzio-oinarriak ezartzen dituena. (BOE, 255. zk.a, 2006ko urriaren 25ekoa).
- 830/2012 Errege Dekretua, ekainaren 25ekoa, biozidekin tratamenduak egiteko prestakuntza arautzen duen araudia ezartzen duena. (BOE, 170. zk.a, 2010eko uztailaren 14koa).

### Autonomikoa:

- 57/2004 Dekretua, abenduaren 21ekoa, EAEko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzeko dena. (EHAA, 3. zk.a, 2005eko urtarrilaren 5ekoa).

## ► Harremanetarako helbideak

- Osasun Publikoko Zuzendaritza. Donostia-San Sebastian kalea, 1. (01010) Vitoria-Gasteiz. Tfnoa: 945-019201. Faxa: 945-019192. e-maila: dirsalud-san@ej-gv.es
- Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordetza. Santiago Etorbidea, 11. (01004) Vitoria-Gasteiz. Tfnoa: 945-017171. Faxa: 945-017179
- Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetza. Errekalde zumarkalea, 39-A. (48008) Bilbao. Tfnoa: 944031500. Faxa: 944031599.
- Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordetza. Nafarroa Etorbidea, 4. (20013) Donostia-San Sebastián. Tfnoa: 943022700. Faxa: 943022701.

## ► Ekintza-plana

### Izurriak kontrolatzeko enpresarekin harremanetan jartzea.

- Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribaturik egon behar du.
- Dagokien prestakuntza duten langileak izan behar ditu: arduradun teknikoa / tratamendu-aplikatzaileak.

### Egoera-diagnosia.

- Agentea edo agenteak identifikatzea. Kokapena eta eragin-maila.
- Jatorria eta arrazoiak ezartzea. Banaketa - ugaltzea.
  - > Neurri zuzentzaileak:
  - > Egitura-hutsuneak zuzentzea.
- Baldintza higieniko egokiei eustea.
- Kontrol-metodo egokiena hartzea: Metodo fisikoak / biologikoak/ kimikoak → **“Izurria kontrolatzeko plan integrala”**

### Biozida-tratamendua eginez gero hartu beharreko neurriak.

#### Tratamenduaren aurretik:

- Tratamenduari buruzko aurretiko txostena, jarduera-egutegia.
- Lokala prestatzea. Tratatu beharreko eremua isolatzea.
- Langile prestatuak Langileak babesteko ekipoak.

#### Tratamendua egiten ari denean:

- Pertsonarik, animaliarik eta elikagairik ez dagoela ziurtatzea.
- Eremuetan seinaleak jartzea.
- Segurtasun-neurriak. Alergikoei arreta berezia jartzea.
- Tratamendu-ekipoak behar bezala erabiltzea.

#### Tratamenduaren ondoren:

- Trataturako eremuak zigilatzea (beharrezkoa bada).
- Segurtasun-epea errespetatzea.
- Hondakinak minimizatzea eta egoki kudeatzea.
- Gertakarien txostena egitea.

#### EGINDAKO TRATAMENDU-ZERBITZUAREN ZIURTAGIRIA

### Aplikaturako kontrol metodoa ebaluatzea.

- Planaren betetze-maila.
- Hautaturako metodoa egokia izan den ebaluatzea.
- Neurri zuzentzaileak betetzen diren eta mantentzen diren ikustea.
- Izurriaren jarduera zaintzea.
- Zeharkako eta bigarren mailako ondorioak badagoen ikustea.

# KONTROL-PLANA

## EGOERA-DIAGNOSIA

- AURRETIKO INFORMAZIOA JASOTZEA
- IKUSKATZEA
- EGOERA AZTERTZEA

ORGANISMO KALTEGARRIAK DAUDE

EZ

BAI

INGURUNE-EGOERA

EGOKIA

Aldian behingo zainketa

INFESTAZIORAKO BIDEA EMATEN DU

- Egitura- eta eraikuntza-elementuen gaineko neurriak.
- Baldintza higieniko-sanitarioen eta ingurumenekoen gaineko neurriak.
- Portaera eta ohitura osasungarriak sortzeko neurriak.
- Hurbileko inguruan egin beharreko zuzeneko kontrolerako neurriak.

- Egitura- eta eraikuntza-elementuen gaineko neurriak.
- Baldintza higieniko-sanitarioen eta ingurumenekoen gaineko neurriak.
- Portaera eta ohitura osasungarriak sortzeko neurriak.
- Hurbileko inguruan egin beharreko zuzeneko kontrolerako neurriak.
- Instalazioen barnean zuzeneko kontrolerako neurriak.

JARDUERA-PROGRAMA

EBALUAZIOA

- BETETZE-MAILA
- ERAGINKORTASUNA
- BARNEKO GIROAN IZANDAKO KONTRAKO ONDORIOAK